

# **ANTZERKI TAILERRA DBHko 1.MAILAN**

## **2014-2015 IKASTURTEA**

### **HELBURUEN AURKEZPENA**

Pelikula amerikar batean pertsonaia batek zioen amerikarrei heriotzaren ondoren beldur gehiago ematen ziena publikoarengan hitz egitera zela. Egia esanda egin behar dugunean sabelean sortzen zaizkigu tximeleta batzuk kikililiak egiten eta nahiko desoroso sentitzen gara.

Mezu, ideia edo gai bat publikoari ahoz komunikatzeak prestakuntza bat eskatzen du eduki aldetik, bere antolaketa, egitura bat, denboralizazio bat, erritmoa...Baina hau ez da nahikoa. Gauza ez da bakarrik edukia azaltzea, jendeari nola bideratzen den baizik. Badaude arlo oso garrantzitsu eta delikatuak ala nola publikoaren presentzia eta bere kokamen espaziala, espazioaren antolaketa, adierazpenarekin lotuta dauden zenbait gauza (ahozkera, bolumena, doinua...), begirada, gorpuzt postura, keinuak...

Guzti hau kontuan izateko formatuntza behar da, arauak ezagutu eta jakin jendearengan iristeko badaudela bide lagungarriak. Eta azken finean, behin eta berriro horrelako esperientziak bizi izatea erosoago sentitzeko egoera hauetan. Persona bat zein ondo adierazten den edo komunikatzaile zein ona den diogunean, erabilera lingüistiko oneko, energia eta presentziari buruz ere hitz egiten ari gara mezua bideratzeko era egokian.

### **DBHko 1.MAILAKO GARATZEN DIREN KOMPETENTZIAK**

- Jendearen aurrean hitz egiteko oinarrizko baldintzak ezagutzea
- Ahozko eta ez ahozko mintzaiaren teknikak erabiltzea.
- Antzezlanaren testua ahots gorako irakurketa zuzena egitea, puntuazio ikurrak eta jarrerak errespetatuz.
- Ahots gorako irakurketaren arauak ezagutzea ikuslegoaren aurrean komunikatzeko.
- Pertsonaiari dagokion testua eta ekintzen gidoia buruz ikastea.
- Pertsonaia garatzeko keinua, ahotsa eta mugimendua erabiltzen du era egokian.
- Antzerki emanaldirako diren oinarrizko arauak betetzen ditu: sarrera-irteerak, kokamenak kontzentrazioa, jarrera baikorra, isiltasuna.
- Antzerkiren inguruan ematen diren lanbide desberdinak ezagutzen ditu.